



Espediente zk. / Nº expediente: 653/2023

Prozedura / Procedimiento:

Pagazuri aterpearen kudeaketa arautzen duen udal ordenantzaren aldaketa / Modificación de la ordenanza municipal reguladora de la gestión del refugio Pagazuri

**PAGAZURI ATERPEAREN KUDEAKETA
ARAUTZEKO ORDENANTZA**

1. artikulua.- Helburua:

1. Pagazuriko aterpea erabilera kontrolatuko ekipamendu bat da. Hori dela eta, baimena eskatu behar da erabili ahal izateko; gainera, egin nahi den erabilera, funtzionamendu arauetara egokitu beharko da.

2. Pagazuri aterpearen erabilera pribatiboa egin nahi duen pertsonak edo entitateak, alkatetzari idatziz eskatu beharko dio dagokion eskabidearekin bat etorriz (udaletxeko bulegoetan dago eskabidea); honako datu hauek adierazi beharko ditu:

- Taldean diren pertsonen kopurua.
- Taldeko arduradun bat edo batzuk identifikatzeko datuak (pertsona horien NAN kopia erantsi beharko da).

- Instalazioak zein datatan erabiliko diren.

3. Alkatetzak emango du Pagazuri aterpearen erabilera eta, horretarako, erabiltzeko eskaerak erregistroan noiz sartu diren kontuan izango du. Eskaerak ezin dira bi hilabete baino gehiagoko aurrerapenarekin aurkeztu.

4. Gehienezko egonaldia 7 egunekoa da.

2. artikulua.- Tasa:

Udal honek Zigoitiko udalerriko Pagazuriko aterpearen erabilera pribatiboagatiko tasa ezartzen du, zerbitzu publikoak emateagatik edo administrazio-jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasa eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan jasotakoaren arabera.

3. artikulua.- Instalazioak erabiltzea:

1. Instalazioak zaindu eta errespetatu behar dira, denontzako baitira. Edozein akats edo zerbait apurtu dela ikusiz gero, udalari jakinarazi beharko zaio.

2. Sua, horretarako bereziki diren

**ORDENANZA PARA LA REGULACIÓN DE
LA GESTIÓN DEL REFUGIO DE PAGAZURI**

Artículo 1º.- Objeto:

1. El refugio de Pagazuri es un equipamiento de uso controlado y como tal para usarlo hay que solicitar autorización y que el uso que se pretende se adapte a las normas de funcionamiento.

2. Toda persona o entidad interesada en la utilización privativa del refugio Pagazuri deberá solicitarla por escrito a la alcaldía conforme a impreso correspondiente (disponible en las oficinas del ayuntamiento), indicando los siguientes datos:

- Número de personas del grupo.
- Datos de identificación completos de una o varias personas responsables del grupo (habrá de adjuntarse fotocopia del DNI de dichas personas).
- Fechas de uso de las instalaciones.

3. La concesión de uso del refugio de Pagazuri se hará por la alcaldía atendiendo al criterio de orden de registro de entrada de la solicitud de utilización. Las solicitudes no podrán presentarse con más de dos meses de antelación.

4. La estancia máxima será de 7 días.

Artículo 2º.- Tasa:

Este ayuntamiento establece la tasa por utilización privativa del refugio de Pagazuri, perteneciente al término municipal de Zigoitia en los términos recogidos en la ordenanza reguladora de tasas y precios públicos por prestación de servicios públicos o realización de actividades administrativas.

Artículo 3º.- Utilización de las instalaciones:

1. Las instalaciones deben cuidarse y respetarse ya que están al servicio de todos. En caso de detectar cualquier deficiencia o deterioro habrá de comunicarse al ayuntamiento.

2. La utilización de fuego sólo se





eremuetan baino ezingo da egin eta arreta guztiarekin egin beharko da. Ezin da zuhaitzetatik adarrak edo enborrak kendu, sua egiteko dagoen egurra edo zorutik hartutako egur hila baino ezingo da erabili. Errautsa, horretarako aterpean jarri den edukiontzian utzi beharko da. udaleko langile teknikoak arduratuko dira edukiontzi horren kudeaketaz.

3. Aterpeko erabiltzaileek eurek kudeatu beharko dituzte zaborrak eta gainontzeko hondakinak. Hondakin horiek menditik jaitsi eta horiek uzteko dauden edukiontzietan utzi beharko dituzte.

4. Aterpearen kanpoaldea garbi utzi behar da.

5. Sukaldea eta komuna arreta handiz garbitu beharko dira, oso eremu bereziak baitira eta zehaztasunez berrikusiko dira. Gainera, ontziteria garbi eta bere lekuan utzi beharko da.

6. Osasungarritasun eta higiene arazoak direla-eta, aterpean ezin da janaririk utzi (olioa, azukrea, etab.); janari-hondar horiek karraskariak eta intsektuak erakartzen baitituzte.

4. artikulua.- Erantzukizuna kalterik balego:

1. Erabilera pribatuak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea badakar berekin, onuradunak haiek berreraikitzeke edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du; horrez gainera tasa ordaindu beharko du.

2. Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriadurari dagokiona izango da.

3. NAN aurkeztu duen eskatzaileak izango du aterpearen erabilera egokiaren ardura.

5. artikulua.- Kudeaketa:

1. Aterpean gehien jota 20 pertona sar daitezke.

2. Udalak giltzak emango dizkio taldeko arduradunari. Giltza horiek udalari itzuli beharko dizkio egonaldia amaitu eta hurrengo lanegunean.

3. Giltzak itzultzen direnean, udalari aterpeko instalazioek duten egoeraren berri emango zaio, baita garbitzeko erabili diren

permite en las zonas expresamente autorizadas para ello, extremando en todo caso las precauciones. No se permite el arranque de ramas o troncos de los árboles, aceptándose únicamente el consumo de leña dispuesta al efecto, o la recogida de leña muerta del suelo. La ceniza debe ser depositada en el contenedor del refugio habilitado para dicho uso. Su eliminación será gestionada por personal técnico del ayuntamiento.

3. Las basuras y demás residuos deberán ser gestionados por los propios usuarios del refugio, los cuales deberán de bajar del monte dichos residuos y depositarlos en contenedores habilitados para dicho uso.

4. El exterior del refugio deberá quedar limpio.

5. Se deberá poner especial cuidado a la hora de limpiar cocina y baño, ya que son los espacios más sensibles y se van a revisar con detenimiento. Asimismo se deberá dejar la vajilla limpia y ordenada.

6. Se prohíbe dejar comida (aceite, azúcar, y otros) en el refugio por motivos de salubridad e higiene, ya que estos restos suelen atraer a roedores e insectos.

Artículo 4º.- Responsabilidad en caso de daños:

1. Cuando la utilización privativa lleve aparejada la destrucción del dominio público local, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa a que hubiese lugar, estará obligado al reintegro del coste total de los respectivos gastos de reconstrucción o reparación y al depósito previo de su importe.

2. Si los daños fueran irreparables, el ayuntamiento será indemnizado en cuantía igual al valor de los bienes destruidos o al importe del deterioro de los daños.

3. La persona solicitante que presente su DNI será la responsable de la adecuada utilización del refugio.

Artículo 5º.- Gestión:

1. El número de personas máximo que pueden entrar en el refugio es de 20 personas.

2. El ayuntamiento entregará las llaves a la persona responsable del grupo, las cuales deberán ser devueltas al ayuntamiento el primer día hábil siguiente, tras finalizar la estancia.

3. A la devolución de las llaves se informará al ayuntamiento del estado de las instalaciones del refugio así como de los





tresnen berri, ordezkak ditzaten. Horretarako udaletxean dagoen galdeketa-eredua bete beharko da.

4. Udalak eskabideak ezesteko edo erreserbak indargabetzeko eskubidea gordetzen du, eta egoera horien berri eman beharko die interesdunei ahalik eta epe laburrenean. Halaber, justifikazio-kausak adierazi beharko dizkie.

Salbuetsita geratzen da aurrez abisatu beharreko betekizuna, eguraldi txarra (erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jar dezake) dela medio, erreserbak bertan behera utzi behar izatekotan. Nolanahi ere, udala eskatzaileei informatzen saiatuko da telefonoz edo posta elektronikoz.

5. Ekintzetatik edo jardueretatik erator daitekeen erantzukizuna espazioaren pertsona eskatzaileak izango du.

utensilios de limpieza utilizados para que puedan ser repuestos, siguiendo el formulario modelo disponible en las dependencias del ayuntamiento.

4. El ayuntamiento se reserva el derecho a denegar solicitudes o anular las reservas debiendo notificar la circunstancia a las personas interesadas en el plazo más breve posible con indicación de las causas justificativas.

Queda exceptuada la obligación de preaviso en caso de anulación de la reserva por inclemencias meteorológicas que puedan poner en riegos la seguridad de las personas usuarias. En todo caso, el ayuntamiento intentará informar a las personas solicitantes por teléfono o correo electrónico.

5. La responsabilidad que pueda derivarse de los actos o actividades recaerá en la persona solicitante del espacio.

EGINBIDEA.- Pagazuriko aterpearen kudeaketa arautzen duen ordenantzaren aldaketa Udalbatzak onartu zuen 2023ko urriaren 23an egindako bilkuran, eta ALHAOn (130. zk., 2023ko azaroaren 6koa) eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratu zen, 30 egunez jendaurrean egon zedin. Ez zen erreklamaziorik aurkeztu. Oso-osorik argitaratu da ALHAOn, 6. zenbakian, 2024ko urtarrilaren 15ean.

DILIGENCIA.- Se extiende para hacer constar que la modificación de la ordenanza para la regulación de la gestión del Refugio de Pagazuri, fue aprobada por esta Corporación en Sesión celebrada el día 23 de octubre de 2023, y publicada en el BOTHA (nº 130 de fecha 6 de noviembre de 2023) y en el tablón de anuncios del ayuntamiento para su exposición al público durante el plazo de 30 días no habiéndose presentado reclamación alguna. Publicada íntegramente en el BOTHA nº 6 de fecha 15 de enero de 2024.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO AGIRIA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

